

Euslinux 2011



2012.eko maiatzaren 31

Laburpena

Euslinux 2011 banaketa nola instalatzen edo probatzen den azaltzen du tutoretza honek.

Sarrera

Aurreko Euslinux banaketen irudi-fitxategiek instalatzeko aukera soilik eskaintzen zuten. Uneko irudi-fitxategia ordea ordenagailuan instalatzeaz gain zuzenean probatzeko aukera ere ematen du (banaketa hau ingelesez LiveDVD deritzona baita). Horretaz gain, aipatzea komeni da uneko banaketa grabatzeko DVD euskarri bat behar dela, ez baita CD-ROM batean sartzen.


Sartu Euslinux 2011 banaketaren DVDa ordenagailuan eta abiarazi ordenagailua DVD unitatetik. DVDtik abiatzean, honako abioko menua agertuko da bi aukera eskainiz: *Probatu* eta *Instalatu*




Probatu aukera lehentsi gisa hautatuta dagoenez, banaketa probatzeko nahikoa litzateke **Sartu** tekla sakatzea. Menuko elementuen artean (**Probatu** edo **Instalatu**) bat aukeratzeko, erabili teklatuko **Gora** eta **Behera** teklak. Sakatu **Sartu** tekla hautatutako aukera abiarazteko.

Euslinux 2011 probatzea

Banaketa honen abioko menuan hautatu **Probatu** aukera, eta sakatu ondoren **Sartu** tekla. Aukera honek zuzeneko Euslinux abiatuko du, eta denbora labur baten ostean, banaketa honek eskaintzen dituen hainbat aplikazio eta funtzionalitate erabilgarri egongo dira **Aplikazioak**, **Lekuak** edo **Sistema** menuak erabiliz.



DVDa zuzenean probatzean supererabiltzailearen saioa terminal batean hastea nahi izanez gero, exekutatu honako komandoa terminalean (ez du pasahitzik eskatzen): `sudo bash`




Probako saiotik irten eta ordenagailua itzaltzeko, egin klik **Sistema** > **Itzali** menuan.

Euslinux 2011 instalatzea


Oharra: ordenagailuan beste sistema eragile bat edukiz gero, Euslinuxentzako aparteko partizioa eginda eduki behar da. Bestela instalazioan partizioak sortzean aurreko sistemako datuak ezabatu egingo baitira.



DVDa abiatzean hautatu **Instalatu** aukera, eta sakatu **Sartu** tekla. Ondoren, teklatu-diseinuaren zerrendan hautatu zure ordenagailuari egokitzen zaiona. Hego Euskal Herrian **Espainiarra** teklatu-diseinua erabili ohi da, iparraldean, oster, **Frantsesa** diseinua nagusitzen da.



Sareko txartela detektatzen saiatuko da.




Ordenagailuak sareko txartelik ez badu, hautatu "ez du sareko txartelik" eta sakatu **Sartu** tekla. Gero, hurrengo elkarrizketa-koadroan hautatu "*Jarraitu*" botoia eta sakatu **Sartu** tekla.

Banaketaren instalatzaileak sareko txartela detektatzean DHCP bidez ordenagailuaren IP helbidea lortzen saiatuko da. Ordenagailua ez badago sarera konektatuta edo instalatzaileak ezin badu DHCP zerbitzariarekin konektatu hautatu "*Ez konfiguratu sarea orain*" eta sakatu **Sartu** tekla.


Instalatzaileak DHCP zerbitzariarekin konektatzea lortzen badu automatikoki hurrengo urratsera joango da.

Euslinux 2011 banaketak ez dauka 'root' supererabiltzailea lehenetsi gisa aktibatuta. Hori dela eta, ondorengo urratsetan, erabiltzailearen benetako izen-abizenak eta saio-hasierako erabiltzaile-izena (dagokion pasahitzarekin) ezarriko dira.

Idatzi zure benetako izen-abizenak, eta sakatu **Sartu** tekla.



Aldatu erabiltzaile-izena leihoan agertzen dena ez bada zuzena. Instalatzaileak normalean benetako erabiltzailearen aurreko izena hartu eta letra minuskuletara bihurtu ondoren saioa hasteko erabiltzaile-izen gisa prestatzen du.



[!!] Konfiguratu erabiltzailea eta pasahitzak


Hautatu kontu berriaren erabiltzaile-izena. Zure izena aukera egokia da. Erabiltzaile-izena letra minuskularekin hasi behar du eta zenbakiren eta letra maiuskula/minuskulen konbinazioarekin jarraitu.

Sartu kontuaren erabiltzaile-izena:

enbata

<Joan atzera> <Jarraitu>

Sartu orain dagokion pasahitza:




[!!] Konfiguratu erabiltzailea eta pasahitzak

Pasahitz egoki bat hizki (maiuskulak eta minuskulak), zenbaki eta puntuazio ikurren nahasketa izaten da, eta aldiro aldatzea gomendatzen da.

Hautatu erabiltzaile berriaren pasahitza:

<Joan atzera> <Jarraitu>

Berretsi pasahitza, zuzena dela ziurtatzeko, eta sakatu **Sartu** tekla aurrera jarraitzeko:



[!!] Konfiguratu erabiltzailea eta pasahitzak


Sartu erabiltzailearen pasahitza berriro, ongi idatzi duzula ziurtatzeko.

Berretsi pasahitza:

<Joan atzera> <Jarraitu>


Disko gogorrean partizioak egiteko urratsera iritsi da, Euslinux 2011 banaketa instalatzeko.

Oharra: "*Aldaketak diskoan idatzi nahi dituzu?*" galderari erantzuten ez diozun bitartean, instalatzailean definitutako partizio berriak ez dira benetan sortuko edo ezabatuko. "*Aldaketak diskoan idatzi nahi dituzu?*" diskoan partizioak egiteko azken urratsa da.




Orain diskoen partizioak eskuz nola egiten diren azalduko dugu. Ordenagailuak disko gogor bat baino gehiago edukiz gero, hautatu bat. Jarraibide hau azaltzeko 21,5 GBeko disko gogorra erabili den arren, handiagoentzako aipamenak ere aurkituko dituzu.

Esan bezala, hautatu¹ disko gogor bat EUSLINUX 2011 banaketa instalatzeko eta sakatu **Sartu** tekla.




¹Erabili teklatuko **Gora** eta **Behera** teklak menuko elementuen artean mugitzeko. **Tabuladorea** teklarekin, berriz, leihoko area nagusitik **<Joan atzera>** edo **<Jarraitu>** bezalako elementuetara joan zaitezke.


Adibide honetan disko gogorraren edukia hutsa denez, *LEKU LIBREA* aukeratu eta **Sartu** tekla sakatuko da.




Partizio berri bat sortzeko, aukeratu '*Sortu partizio berri bat*' elementua eta sakatu **Sartu** tekla.




Sistemaren oinarria eta aplikazioak instalatzeko erabiliko den partizioa hau² izango denez, ezarri partizioaren tamaina 10 GBetan eta sakatu **Sartu** tekla (edo sakatu **Tabuladorea** tekla <*Jarraitu*> botoian kokatzeko eta sakatu **Sartu** tekla).



Diskoaren partizio berria zer motakoa izango den zehaztu. Disko gogorreko lehenengo partizioa bada (aurrez beste partiziorik ez bada sortu), hautatu *Lehen mailakoa* eta sakatu **Sartu** tekla. Disko gogorrean Windows sistema ere egonez gero, hautatu *Logikoa* aukera.



Partizioak disko gogorraren hasieratik ahalik eta gertuen egotea komeni denez, hautatu *Hasiera* eta sakatu **Sartu** tekla.



²Fitxategi-sistemaren erroa deitzen zaio.

Kokatu *Honela erabili* eremuan eta sakatu Sartu tekla

```

[!!] Disko partizioak

SCSI1 (0,0,0) (sda) gailuko 1. partizioa editatzen ari zara. Lehendik
zegoen fitxategi-sistematik ez da detektatu partizio honetan.

Partizio ezarpenak:

Honela erabili:      Ext3 egunkaridun fitxategi-sistema

Muntatze-puntua:      /
Muntatze-aukerak:     defaults
Etiketa:              bat ere ez
Erreserbatutako blokeak: 5%
Erabilera arrunta:    estandarra
Abiarazgarriaren bandera: desaktibatuta

Kopiatu datuak beste partizio batetik
Ezabatu partizioa
Partizioa konfiguratu da

<Joan atzera>
```

Lehenetsi gisa *Ext3* formatua egon arren, hautatu *Ext4* formatua eta sakatu Sartu tekla.

```


[!!] Disko partizioak

Nola erabili partizio hau:


Ext3 egunkaridun fitxategi-sistema
Ext4 egunkaridun fitxategi-sistema
Ext2 fitxategi-sistema
JFS egunkaridun fitxategi-sistema
XFS egunkaridun fitxategi-sistema
FAT16 fitxategi-sistema
FAT32 fitxategi-sistema
swap area
bolumen fisikoa enkriptatzeko
RAIDen bolumen fisikoa
LVM bolumen fisikoa
ez erabili partizioa

<Joan atzera>
```


Muntatze-puntua eremuan / (fitxategi-sistemaren erroa adierazten du) agertu behar du.




Muntatze-puntua eremuan / ez bada agertzen, sakatu **Sartu** tekla eta leiho hau agertuko da muntatze-puntua hautatzeko. Leiho honetan hautatu / eta sakatu **Sartu** tekla.




Disko gogorrean aurrez bestelako partiziorik ez bada egin, uneko partizioari abirazgarriaren bandera ezarri.




Horretarako kokatu *Abirazgarriaren bandera* eremuan eta sakatu *Sartu* tekla, bandera aktibatuta egoteko. Ondoren, kokatu *Partizioa konfiguratu da* eremuan eta sakatu *Sartu* tekla uneko partizioaren ezarpenetatik irteteko.



Fitxategi-sistemaren erroarentzako partizioa sortu ondoren, erabiltzailearen karpeta nagusia kokatzeko partizioa sortuko da orain. Kokatu *LEKU LIBREA* jartzen duen aukeraren gainean eta




sakatu **Sartu** tekla. Partizio berria sortzeko sakatu **Sartu** berriro.




Erabiltzaile arruntek erabiliko duten partizioaren tamaina ezarri. Partizio hau /home izeneko muntatze-puntuan kokatuko da. Adibidearekin jarraitzeko 10 GB zehaztu den arren, irakurlearen disko gogorraren tamaina totala 500 GBkoa izanez gero, eta / partizioari 10 GB eskaini izan bazaio, eskaini 486 GB /home izeneko partizioari. Soberan geratuko diren 4 GBak beranduago erabiliko dira.


Aipatu bezala, adibide honetan 10 GB emango dizkiogu erabiltzaileentzako izango den partizioari.




Partizioaren tamaina zehaztutakoan sakatu Tabuladorea tekla <Jarraitu> botoian kokatzeko, ondoren sakatu Sartu tekla (edo zuzenean sakatu Sartu tekla). Lehenbiziko partizioa *Lehen mailakoa* gisa sortu bada, unekoa ere horrela sortu.




Zehaztu partizioaren kokalekua *Hasiera* bezala, eta sakatu Sartu tekla.



Nahiz eta lehenetsi gisa *Ext3* formatuan agertu, hori aldatzeko sakatu **Sartu** tekla.



Eta hautagai daudenen artean, hautatu *Ext4* formatua. Ondoren, sakatu **Sartu** tekla partizioaren ezarpenetara itzultzeko.



Muntatze-puntua eremuan /home agertu beharko luke. Ez bada horrela, erabili teklaturako **Gora** eta **Behera** teklak eremu horretan kokatzeko, eta ondoren sakatu **Sartu** tekla muntatze-puntu desberdinen zerrenda ager dadin.

Aldaketa gehiagorik ez bada egin behar, kokatu *Partizioa konfiguratu da* eremuan, eta sakatu **Sartu** tekla.

!!!

Disko partizioak

SCSI1 (0,0,0) (sda) gailuko 2. partizioa editatzen ari zara. Lehendik zegoen fitxategi-sistematik ez da detektatu partizio honetan.

Partizio ezarpenak:

Honela erabili:	Ext4 egunkaridun fitxategi-sistema
Muntatze-puntua:	/home
Muntatze-aukerak:	defaults
Etiketa:	bat ere ez
Erreserbatutako blokeak:	5%
Erabilera arrunta:	estandarra
Abiarazgarriaren bandera:	desaktibatuta

Kopiatu datuak beste partizio batetik
Ezabatu partizioa
Partizioa konfiguratu da

<Joan atzera>

Ondoren, irudian ikus daitekeenez, jadanik 2 partizio ditugu sortuta: / eta /home izenekoak. Orain, beste sistema eragile batzuetan 'memoria birtuala' esaten zaion partizioa sortuko da. Horretarako, kokatu *LEKU LIBREA* agertzen den elementuan eta sakatu **Sartu** tekla.

!!!

Disko partizioak

Unean konfiguratutako partizioei eta muntatze puntuei buruzko informazio orokorra da hau. Hautatu ezarpenak aldatzeko partizio bat (fitxategi-sistema, muntatze puntua, etab.), partizioak egiteko leku libre bat edo partizio taula abiarazteko gailu bat.

Partizioak gidatuta egitea
Konfiguratu RAID softwarea
Konfiguratu bolumen logikoen kudeatzailea
Konfiguratu bolumen enkriptatuak


SCSI1 (0,0,0) (sda) - 21.5 GB ATA QEMU HARDDISK

1.	1. maila	10.0 GB	B	f	ext4	/
2.	1. maila	10.0 GB		f	ext4	/home
	1.m/log	1.5 GB			LEKU LIBREA	


Desegin partizioetako aldaketak
Partizio aldaketak burutu dira eta aldaketak diskoan idatzi

<Joan atzera>


Sakatu berriro **Sartu** tekla partizio berri bat sortzeko.




Eta trukatzeko partizioaren tamaina 1.5 GBn ezarri. Gogoratu, 500 GBko disko gogorra baduzu, eta aurrez 10 GB eta 486 GBko bi partizio sortu badituzu, unekoak 4 GBkoa izan beharko lukeela. Adibidean, ordea, 1.5 GBko tamaina ezarriko da.




Sakatu **Sartu** tekla aurrera jarraitzeko. Hautatu *Lehen mailakoa* aurreko partizioak ere mota horretakoak badira.



Diskoaren partizio hau memoria trukatzeko partizio gisa (edo 'memoria birtuala') erabiliko denez, *Honela erabili* eremuan kokatu eta sakatu **Sartu** tekla bestelako formatu bat hautatzeko.



Kasu honetan *swap area* formatua hautatu eta sakatu **Sartu** tekla partizioaren ezarpenetara itzultzeko.



Kokatu *Partizioa konfiguratu da* eremuan, eta sakatu **Sartu** tekla.

```
[!!] Disko partizioak

SCSI1 (0,0,0) (sda) gailuko 3. partizioa editatzen ari zara. Lehendik
zegoen fitxategi-sistematik ez da detektatu partizio honetan.

Partizio ezarpenak:

      Honela erabili:          swap area

      Abiarazgarriaren bandera:  desaktibatuta

      Kopiatu datuak beste partizio batetik
      Ezabatu partizioa
      Partizioa konfiguratu da

<Joan atzera>
```

Hiru partizioak definitu³ ondoren, eta definitutako partizioekin ados egonez gero (*f*) zutabeek partizio horiek formateatu egingo direla adierazten dute), kokatu *Partizio aldaketak burutu dira eta aldaketak diskoan idatzi* aukeran. Gero sakatu **Sartu** tekla partizioak sortu eta formateatzen hasteko.

```
[!!] Disko partizioak

Unean konfiguratutako partizioei eta muntatze puntuei buruzko
informazio orokorra da hau. Hautatu ezarpenak aldatzeko partizio bat
(fitxategi-sistema, muntatze puntua, etab.), partizioak egiteko leku
libre bat edo partizio taula abiarazteko gailu bat.

Partizioak gidatuta egitea
Konfiguratu RAID softwarea
Konfiguratu bolumen logikoen kudeatzailea
Konfiguratu bolumen enkriptatuak


SCSI1 (0,0,0) (sda) - 21.5 GB ATA QEMU HARDDISK
  1. 1. maila 10.0 GB B f ext4 /
  2. 1. maila 10.0 GB f ext4 /home
  3. 1. maila 1.5 GB f swap swap

Desegin partizioetako aldaketak
Partizio aldaketak burutu dira eta aldaketak diskoan idatzi


<Joan atzera>
```

³Gogoratu oraindik ez dela partiziorik sortu edo ezabatu. Orain arte, partizio berriak definitu dira soilik.


Azpiko leiho hau agertuko da. Zalantza bat edukiz gero, garaiz zaude diskoko partizioen aldaketak bertan behera utzi eta hasierako egoerara itzultzeko. Aldaketak diskoan idazteko kokatu <Bai> botoian **Tabuladorea** tekla erabiliz. Ondoren sakatu **Sartu** tekla partizioak behin betiko sortzeko.




Diskoko partizioak sortu eta formatu emateari ekingo dio.



Partizioak sortu ostean, sistemako oinarria eta aplikazioak instalatzen hasiko da.



20 edo 30 bat minutu igaro ondoren, ordenagailuaren gaitasunaren arabera, EUSLINUX 2011 banaketa instalatu den jakinarazpena agertuko da. Sakatu **Sartu** tekla ordenagailua berrabiarazteko. Gogoratu ordenagailua berrabiaraztean DVD euskarria unitatetik kentzea.



Ordenagailua berriro piztean honako menua agertuko da.



Euslinux 2011 abiarazteko segundo gutxi batzuk beharko ditu.

Ondoren, saioa hasteko erabiltzaile-izena hautatu, eta idatzi dagokion pasahitza.

